

# **2016ko otsailaren 22ko 154/2016 FORU AGINDUA, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuaren diru laguntzei buruzko espedienteen hainbat tramite bitarteko elektronikoen bidez egiteko obligazioa arautzen duena.**

## **(2016ko martxoaren 2ko GAO)**

### **OHARRA**

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

2010eko irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak araututa utzi zuen bitarteko elektronikoen erabilera Foru Administrazioaren eremuan, 2007ko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoak, ezarritakoaren barruan.

Bitarteko elektronikoen erabileran bete beharreko printzipioen barruan, aipatutako foru dekretuaren 3. artikulua esaten du herritarrentzat borondatezkoa izango dela bitarteko horiek erabiltzea administrazioarekiko euren harremanetan.

Alabaina, printzipio horrek badu salbuespen bat, eta da Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuek Administrazioarekiko harremanak bide elektronikoz bakarrik izateko obligazioa ezarri dezaketela, beren gaitasun ekonomiko edo teknikoagatik, beren lanbideagatik edo behar bezala frogatutako beste arrazoi batzuegatik, beharrezko bitarteko teknologikoak eskura dituzten pertsona juridikoak edo pertsona fisikoen taldeak direnean.

Salbuespen horren garapen gisa, aipatutako foru dekretuaren 33. artikulua dio obligazioa ezartzen duen xedapenak gutxienez puntu hauek finkatu beharko dituela:

a) Zein komunikaziori aplikatzen zaien obligazioa, berariaz adierazita Administrazioaren jakinarazpenak bitarteko elektronikoz egitea edo erregistro elektronikoa erabiltzea obligazio horren barruan sartzen diren edo ez.

b) Zein bide elektronikoa erabili behar den.

c) Sinadura elektronikoko zein sistema erabili daitezkeen.

d) Zein pertsona, talde edo entitate dauden behartuta.

Horrez gain, dio aipatutako xedapena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa argitaratu beharko dela.

Asmo horrekin, foru agindu honek bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen du, diru laguntzekin lotutako zenbait tramitetarako, zehazki Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko departamentuko diru laguntza espedienteetan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan tramiteak egiteko bidea ematen bada eta dagokion laguntza programaren oinarri arautzaileetan hala aurreikusita badago; eta obligazio hori ezartzen die departamentuko propioak diren eremuetan lan egiten duten pertsona, talde eta entitateei.

Hortaz, 2010eko irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duenak, 33. artikuluan ezarritakoa garatzeko, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko foru diputatu honek

## **XEDATZEN DU**

### **1. artikulua. Aplikazio eremua.**

Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko departamentuko diru laguntzei buruzko espedienteen hainbat tramite bitarteko elektronikoen bidez egiteko derrigortasuna ezartzen da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (<https://www.gfaegoitza.net>) tramiteak egiteko bidea ematen bada eta dagokion laguntza programaren oinarri arautzaileetan hala aurreikusita badago.

### **2. artikulua. Diru laguntzei buruzko espedienteetan zenbait tramite bitarteko elektronikoz egitera behartuta dauden entitateak.**

1. Behean azaltzen diren entitateak behartuta egongo dira bitarteko elektronikoak erabiliz egitera foru agindu honek xede dituen diru laguntzen espedienteetako tramiteak, dagokion laguntza programaren oinarri arautzaileetan hala zehazten bada:

- Udalak.
- Mankomunitateak.
- Eskualdeko garapen agentziak.
- Bestelako toki entitateak.
- Herritar erakundeak.
- Irabazi asmorik gabeko erakundeak.

2. Zehazki, artikuluan honen lehen atalean aipatutako entitateek laguntza eskaerak, diru laguntza duten jarduketan egiaztagiria eta entitateak nahi duen edo eskatzen zaion beste edozein dokumentu osagarri aurkeztu behar dituzte bitarteko elektronikoak erabilia, aipatutako egoitza elektronikoan aurkezteko modua baldin badago.

3. Bigarren atalean ezarritako obligazioak berarekin dakar erregistro elektronikoa erabiltzea foru agindu honen 4. artikuluan ezartzen den prozedurari jarraituta; aitzitik, ez dakar jakinarazpenak bide elektronikoz jasotzea, non eta foru agindu bidez ez den bestelakorik ezartzen.

4. Bigarren atalean adierazitako aurkezpen edo tramiteak egiteko, horretara behartuta dauden entitateek sinadura elektronikoa aitortua edo 2010eko irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuaren 22. artikuluan araututako pasahitz operatiboa erabili beharko dute. Edonola ere, pertsona fisikoek nortasun agiri nazionalari erantsitako sinadura elektronikoko sistemak erabili ahal izango dituzte.

Ondorio horietarako, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa unean-unean jasotzen den ziurtagiri elektronikoa aitortuen zerrendan agertzen den edozein erabili ahal izango da.

### ***3. artikulua. Diru laguntzen eskaerak eta diru laguntzei buruzko espedienteekiko bestelako tramiteak bitarteko elektronikoz egiteko baldintza orokorrak.***

1. Foru Aldundiaren <https://www.gfaegoitza.net> egoitza elektronikoa sartuta dauden diru laguntzetarako eskaerak eta bestelako tramiteak bide elektronikoa erabiliz egiteko garaian, hala egiteko obligazioa aurreikusten duen laguntza programaren oinarri arautzaileetan ezarritakoa bete beharko da. Zehazki, laguntza eskaerak aurkezteko epea eta diru laguntza duten jarduketan egiaztagiriak aurkezteko, aipatu den obligazioa jasotzen duen araudi espezifikoan ezarritakoa izango dira.

2. Aipatutako bitarteko elektronikoen erabilerari dagokionez, aplikagarriak izango dira 2010eko irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretua, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duena eta foru agindu honetan ezarritakoa.

### ***4. artikulua. Diru laguntzen eskaerak eta diru laguntzei buruzko espedienteekiko bestelako tramiteak bitarteko elektronikoz egiteko prozedura.***

1. Diru laguntzen eskaerak eta diru laguntzei buruzko espedienteekiko bestelako tramiteak bitarteko elektronikoz egiteko, honela egin beharko dute entitateek:

a) Foru Aldundiaren <https://www.gfaegoitza.net> egoitzan dagoen diru laguntzen atarian sartu, eta eskuratu nahi duten laguntzaren programa hautatu.

b) Diru laguntzen aplikazioan sartu «Internet bidezko eskaera» ataletik abiatuta, eta bertan ematen diren jarraibideak bete.

c) Sinadura elektronikoa aitortua erabiliz gero, txartel kriptografikoa txartel-irakurgailuan sartu eta PINa markatu autentikatzeko; gauza bera aplikazioan «sinatu» aukera agertzen denean; edo pasahitz operatiboa erabiliz gero, identifikazio zenbakia eta autentifikazio eta sinadura gakoa sartu.

2. Prozedura horri jarraituz egiten den aurkezpenak, aurrez aurreko aurkezpenarako dagokion araudian ezarrita dauden ondorio eta epe berberak izango ditu.

3. Eskaerari erantsitako dokumentazioak, egiaztagiriek edota edozein dokumentazio osagarrik formatuen eta tamaina mugaketen araberakoa izan beharko dute, unean-unean egoitza elektronikoak adierazitakoaren arabera.

4. Tramiteen transmisio elektronikoan akats formalak antzematen badira, sistemak berak horren berri emango dio entitate eskatzaileari, errore mezuak helaraziz, behar den eran zuzendu ditzan, zuzen badaitezke.

### ***Xedapen gehigarria.***

Salbuespen gisa, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko foru diputatuak baimena eman ahal izango die foru agindu honen 2. artikuluko 1. atalean aipatutako entitate batzuei, atal horretan jasotakoa ez bezalako aurkezpen bideak erabil ditzaten, eta horretarako, behar diren jarraibideak emango ditu.

### ***Amaierako xedapena.***

Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.